

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 851/2021 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen modernizazio, zerbitzu publikoak emateko arrazionalizazio eta produktibitatearen hobekuntzara bideratutako funtsa eratzeari 2021erako**

Funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea, ordainsariei dagokienez, hauek arautzen dute: enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak; Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak; bai eta horiek garatzen dituzten zenbait arauk ere eta, batez ere, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak. Arau horiei Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legeak jasotako xedapenak gehitu behar zaizkie. Bestalde, eta foru administrazioaren eremuari dagokionez, 2021eko otsailaren 1eko ALHAOn argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua gauzatzeari buruzko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Araua.

Bat etorri enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak IV. kapituluari jasotakoarekin, lotuta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak VI. tituluari xedatutakoarekin, legegintzako errege dekretu horrek 37. artikuluan aipatzen duen entzunaldiko izapidea bete da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eremuan, produktibitate osagarria apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduak eta haren ondoz ondoko aldaketek arautzen dute. Produktibitate osagarri horren barruan jasota daude kalitateagatiko produktibitatearen xehetasunak, eta hori ordaintzeko, funts bat sortzen da urtero, eta Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onesten.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onesten duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak 11.g) artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, Arabako Foru Aldundiko Lehendakaria Sailarekin elkarlanean, Foru Gobernu Kontseiluari proposatzea erakunde autonomoari atxikitako langileei aplikatu beharreko ordainsari araubidea eta soldata baldintzak. Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onestea, hala xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.17 artikuluan, lotuta ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin.

Horregatik, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legeak 18. Zazpi artikuluan xedatutakoaren babesean, zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazionalizatzeko eta langileen produktibitatea hobetzeko funts bat eratzen da, zeinak Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 26ko 33/2021 Erabakiaren bidez 2020. urterako ezarritakoaren zenbateko berdina izango baitu, baina beste ehuneko 0,9 igota, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 20ko 215/2021 Erabakian xedatutakoari jarraituz. Funts hori kalitateagatiko produktibitate osagarriaren bidez aplikatuko da, apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduak eranskinaren 2. puntuko F) letran araututako sistemaren arabera (produktibitate orokorra eta produktibitate osagarria).

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundearen; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 28a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**